Hirugarrena.- 2001. urteari dagozkion laguntzak eskatzeko epea aurtengo uztailaren 1ean hasiko da eta urriaren 31n amaituko.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA.- Nekazaritza eta Ingurumen Saileko foru diputatuari ahalmena uzten zaio foru dekretu hau garatu eta ezartzeko behar diren xehapen guztiak eman ditzan eta, bereziki, laguntza hauetaz baliatzeko eskabideak aurkezteko epeak zehatz ditzan, beharrezkoa bada, Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapen Jasangarrirako Planari dagokionez komunitatearen araudian edo erabakietan dauden aldaketei egokitzeko. Ahalmena izango du, halaber, horretarako gordetzen diren kredituen zenbatekoak txikitu edo handitzeko, Sailaren beharren arabera edo aipatutako aldaketen eraginez.

Bigarrena.- Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria/Gasteiz, 2001eko ekainaren 5a.– Nekazaritza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, GABRIEL CHINCHETRU FERNÁNDEZ DE ALEGRÍA.

Tercera.- El plazo de presentación de solicitudes para las ayuda correspondiente al año 2001 será desde el 1 de julio hasta el 31 de octubre de este mismo año.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- Se faculta al Ilustrísimo señor Diputado Foral del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral, y, en concreto, para fijar los plazos de presentación de solicitudes para acogerse a la ayuda regulada en el mismo, para adaptarlo, en su caso, a las modificaciones que se produzcan en la normativa comunitaria o en las decisiones comunitarias respecto del Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como para minorar o incrementar los importes de los créditos que se reservan en el mismo, en función de las necesidades del Departamento y, en su caso, de la adaptaciones antes citadas.

Segunda.- El presente Decreto Foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 5 de junio de 2001.– El Diputado Foral del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente, GABRIEL CHINCHETRU FERNÁNDEZ DE ALEGRÍA.

***Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak***

**4.087**

**456/2001 ERABAKIA, ekainaren 19ko Diputatuen Kontseiluarena; honen bidez, Aiarako udalerrirako egindako Ondasun Higiezinen Zergaren peko hiri-lurzoruaren zedarriketa aldatu egiten da zati batean.**

Maiatzaren 10eko 345/2001 Foru Aginduaren bitartez, behinbehineko onartu zen Aiarako udalerrirako egindako Ondasun Higiezinen Zergaren peko hiri-lurzoruaren zedarriketaren zati bat aldatzea. Honakoak kontuan hartuz egin da hiri-lurzoruaren zedarriketaren aldaketa: Planeamenduko Ordezko Arauen 3 eta 4. aldaketa puntualak, eta “Malato arbola” deritzon urbanizazioaren Plan Partzialaren garapena, otsailaren 10eko 36/1999 zenbakiko Foru Aginduaz, azaroaren 30eko 144/1999 zenbakiko Foru Aginduaz eta apirilaren 14ko 314/2000 zenbakiko Foru Aginduaz onartuak.

Araudi horren xedapen-zatiko 4. artikuluak agintzen duenez, aldaketa Aiarako Udalari jakinarazi behar zitzaion, eta halaxe egin zen: 2001eko maiatzaren 11n igorri zitzaion espedientea, eta 2001eko maiatzaren 16an jaso zuen.

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 11. artikuluaren 4. paragrafoan xedatzen du hamabost eguneko epea eman behar zaiola Udalari, egoki deritzona adieraz dezan.

Jakinarazpena egin ondorengo hamabost eguneko epea igaro da, aipatutako Foru Aginduaren 5. artikuluak xedatzen duen bezala, eta Aiarako Udalak ez du ezer ere adierazi ebazpen horren aurka.

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatutakoari jarraituz, Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKI DUT:

LEHENENGO ARTIKULUA.- Aiarako udalerrirako egindako Ondasun Higiezinen Zergaren peko hiri-lurzoruaren zedarriketaren zati baten aldaketa onartzea. Honakoak kontuan hartuz egin da aldaketa: Planeamenduko Ordezko Arauen 3 eta 4. aldaketa puntualak, eta “Malato arbola” deritzon urbanizazioaren Plan Partzialaren garapena, otsailaren 10eko 36/1999 zenbakiko Foru Aginduaz, azaroaren 30eko 144/1999 zenbakiko Foru Aginduaz eta apirilaren 14ko 314/2000 zenbakiko Foru Aginduaz onartuak.

BIGARREN ARTIKULUA.- Aurreko artikuluan esandakoa gorabehera, hiriguneetatik kanpo egonik hiri-eraikuntzek hartuta dauden lurzoruen tratamenduari buruz 42/89 Foru Arauak (uztailaren 19koa, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzkoa) 2. artikuluaren b) idatz-zatiaren 1, 2 eta 3. puntuetan ezarritakoa kontuan hartzea.

HIRUGARREN ARTIKULUA.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean eta Lurralde Historikoan heda-

***Acuerdos del Consejo de Diputados***

**4.087**

**ACUERDO 456/2001, del Consejo de Diputados de 19 de junio, que aprueba la modificación parcial de la Delimitación de Suelo Urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Ayala.**

Por Orden Foral número 345/2001, de 10 de mayo, se aprobó con carácter provisional, la modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Ayala. La mencionada modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano se realizó de conformidad con la 3ª y 4ª modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, y el desarrollo del Plan Parcial de la urbanización denominada “El Árbol Malato”, aprobada por Orden Foral número 36/1999, de 10 de febrero, por Orden Foral número 144/1999, de 30 de noviembre y Orden Foral número 314/2000, de 14 de abril.

En el artículo 4º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Ayala, disposición que se realizó con fecha 11 de mayo de 2001, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Ayala con fecha 16 de mayo de 2001.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

Habiendo transcurrido el plazo de quince días desde la notificación, tal y como se especifica en el artículo 5º de la referenciada Orden Foral, el Ayuntamiento de Ayala no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral Titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

ACUERDO:

ARTICULO PRIMERO.- Aprobar la modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Ayala de conformidad con la 3ª y 4ª modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, y el desarrollo del Plan Parcial de la urbanización denominada “El Árbol Malato”, aprobada por Orden Foral número 36/1999, de 10 de febrero, por Orden Foral número 144/1999, de 30 de noviembre y Orden Foral número 314/2000, de 14 de abril.

ARTICULO SEGUNDO.- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral 42/89 de 19 de julio del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

ARTICULO TERCERO.- El presente Acuerdo será publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y en los diarios

pen handiena duten egunkarietan argitaratuko da. Horrez gain, 15 egunez jendaurrean edukiko da, interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Aiarako Udalaren bulegoetan jarriko da espedientea jendaurrean, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 11. artikuluaren 5. paragrafoan eta foru arau hori erregelamendu bidez garatzen duen abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren 1080/1992 Foru Dekretuak 7, 8 eta 9. artikuluetan ezartzen duten bezala.

Vitoria/Gasteiz, 2001eko ekainaren 19a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA. – Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se procederá a su exposición pública por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Ayala, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral número 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

Vitoria-Gasteiz, a 19 de junio de 2001.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## LEHENDAKARITZA SAILA

LANGILE ZERBITZUA

**4.275**

**266 zenbakiko FORU AGINDUA, 2001eko martxoaren 22ko 148. Foru Aginduan aurreikusten den ondore fasera deitzen duena.**

2001eko martxoaren 22ko 148 Foru Aginduaren bidez Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko lanpostuak betetzeko lehiaketarako deialdia egin zen. Gerora, beste bi Foru Aginduren bitartez aldatu zen: 2001eko apirilaren 9ko 172 FA eta 2001eko apirilaren 11ko 175 FA.

Deialdian bi fase aurreikusten ziren, lehenik lehiaketa bera, dagoeneko ebatzia, eta gero ondore fasea.

Lehiaketa ebatzita, ondore faserako deia egin behar da, Foru Agindu honen I. Eranskinean agertzen diren lanpostuetarako deialdia eginez.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren. Beste alde batetik, apirilaren 2ko 49/1996 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorrean eskumena duen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zen. Bi horietan ezarritakoaren arabera,

ERABAKI DUT:

LEHENA.- 2001eko martxoaren 22ko 148 Foru Aginduan aurreikusitako ondore faserako deialdia egitea, Foru Agindu honen I. Eranskinean agertzen diren lanpostuetarako.

BIGARRENA.- Lehen fasean parte hartu ez duten funtzionarioek edo, parte hartu izan arren, lanposturik lortu ez dutenek hartu ahal izango dute parte deialdi honetan, aipaturiko Foru Aginduaren bigarren oinarrian aurreikusitako baldintza berberekin.

HIRUGARRENA.- Lanpostuak esleitzeko merezimenduen balorazioa 148/2001 Foru Aginduaren seigarren oinarrian aurreikusitakoari jarraiki egingo da.

LAUGARRENA.- Eskatutako baldintzak eta alegatutako merezimenduak betetzeko erreferentzia eguna 2001eko martxoaren 26a da, 148/2001 Foru Agindua argitaratu zen eguna.

BOSGARRENA.- Eskabideak aurkezteko bost laneguneko epea egongo da, Foru Agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita. Eskabideak Foru Agindu honen Eranskineko eredua baliatuz egin behar dira, 148/2001 Foru Aginduaren bosgarren oinarrian aurreikusitako moduan. Lehen fasean parte hartu zutenek ez dute aurkeztu beharrik aurreko fasean eskabideari erantsi zizkioten agiriak.

SEIGARRENA.- Foru Agindu honetan aurreikusten ez den orotarako, 148/2001 Foru Aginduak dioenari egingo zaio kasu.

ZAZPIGARRENA.- Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzibide errekurtsoa jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko auzibide errekurtsoetarako Epaitegiaren aurrean, edo bestela, hilabeteko epean, berraztertzeko errekurtsoa, ebazpen hori eman duen erakunde beraren aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikuluan –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 116. artikuluarekin loturik– aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria/Gasteiz, 2001eko ekainaren 27a.– Lehendakaritza Saileko Foru Diputatua, ALFREDO MARCO TABAR.– Funtzio Publikoko Zuzendaria, ENRIQUE AGUIRREZÁBAL OTÁLORA.

## DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA

SERVICIO DE PERSONAL

**4.275**

**ORDEN FORAL número 266, de 27 de junio de 2001 por la que se convoca la fase de resultas prevista en la Orden Foral número 148 de 22 de marzo de 2001.**

Por Orden Foral número 148 de 22 de marzo de 2001, modificada por Ordenes Forales número 172 de 9 de abril de 2001 y número 175 de 11 de abril de 2001, se convocó concurso para la provisión de puestos de trabajo en la Administración General de la Diputación Foral de Álava.

En dicha convocatoria se preveían dos fases, la del propio concurso, ya resuelto, y una posterior de resultas.

Como consecuencia de la resolución del concurso procede la convocatoria de la fase de resultas, en la que se convocan los puestos que se relacionan como anexo I a esta Orden Foral.

De conformidad con lo establecido en los Decretos Forales 154/1993 del Consejo de Diputados de 30 de julio, por el que se establecen las atribuciones en materia de Función Pública y 49/1996 de 2 de abril, por el que se aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento competente en materia de Función Pública.

DISPONGO:

PRIMERO.- Convocar la fase de resultas prevista en la Orden Foral número 148 de 22 de marzo de 2001, relativa a los puestos que se adjuntan como anexo I a esta Orden Foral.

SEGUNDO.- En esta convocatoria podrán tomar parte, con los mismos requisitos previstos en la base segunda de la referida Orden Foral, aquellos funcionarios que no hayan participado en la primera fase o que habiéndolo hecho no hayan obtenido puesto.

TERCERO.- La valoración de los méritos para la adjudicación de puestos se efectuará con arreglo a lo previsto en la base sexta de la Orden Foral 148/2001.

CUARTO.- La fecha de referencia para el cumplimiento de los requisitos exigidos y la valoración de los méritos alegados será el 26 de marzo de 2001, fecha de publicación de la Orden Foral 148/2001.

QUINTO.- El plazo de presentación de instancias será de cinco días hábiles, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Orden Foral en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava. Las instancias se presentarán en el modelo que se adjunta como anexo a esta Orden Foral y de la forma prevista en la base quinta de la Orden Foral 148/2001. Quienes participaron en la primera fase quedarán exentos de presentar la documentación que adjuntaron a la solicitud en la fase anterior.

SEXTO.- En todo lo no previsto en esta Orden Foral será de aplicación lo establecido en la Orden Foral número 148/2001.

SÉPTIMO.- Contra esta Resolución podrá interponerse, a partir del día siguiente a su publicación, recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz o, potestativamente, recurso de reposición, en el plazo de un mes, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, de acuerdo con lo previsto en el artículo 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa, en relación con el artículo 116 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de junio de 2001.– El Diputado Foral titular del Departamento de Presidencia, ALFREDO MARCO TABAR.– El Director de Función Pública, ENRIQUE AGUIRREZÁBAL OTÁLORA..